

# BERRIGARA




zenbakia JARDUN Elkarteak, Bergara 1995, abenduak 22.

...BERRIGARA

...bukatu baino lehen eskatu  
nahi dotzut Bergararrei, eta  
bitez be haur denei, erregalu  
politak ekartzeko eta ahaztu  
aurratik Gobon zoriontsuak opa  
nahi dotset Bergoraz guztiei  
Datoren utera arte, Olentzero.

Berrigara



anetik  
ta onetik...  
BEDELKARreko  
mendetan



500.000 pzt.a.  
irabaz  
ditzakezu !!

*Gaben zorientsuak  
izan eta opari asko  
jaso ditzazula!!*

*Marisabel*



EROTALDE JAUREGIA  
570 Bergara  
oia eta Faxe: 76 03 97

**Agintaratzalea:**  
ARDUN Elkartea.  
Basterreka, 13 Bergara.  
oia eta Faxe: 76 08 19

**zuzendaria:**  
Eneko Azkarate

**redakzioa:**  
Eduardo Mendibil  
Agel Elkoroberezibar  
ene Larrañaga

**ketazioa:**  
Eneko Azkarate

**hilitzitatea:**  
Eneko Azkarate

**arpidetzak:**  
Eneko Elortza

**estuen zuzenketak:**  
Eneko Plazaola  
Eneko Laskurain  
Eneko Labaien

**redakzio kontseilua:**  
Eneko Elortza  
Agel Angel Elkoroberezibar  
Eneko Labaien

**amikiak:**  
Eneko Rodriguez  
Eneko Ortega & Jon Alvarez  
Eneko Ugalde

**anaketa:**  
Eneko Txangorri taldea

**trada:**  
Eneko ale.

**artadako marrazkia:**  
Eneko Murgizu

**ymategia:**  
Eneko Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

**pyright:**  
BERRIGARA

**age gordailua:**  
Eneko 50/91  
Eneko ISSN:  
Eneko 10-6599

**BERRIGARAK** ez du bere gain  
eritzen aldizkarian adierazitako  
enaren eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako  
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Euzko Legeburu Batzarreko Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko  
Kulturaren Sailaren  
laguntza jaso du

**Z E B E R R I D A ?**

**LOURDES ROMANO**

**Kapirixo Elkarteko idazkaria**

- Aurreko astean Kapirixoko Batzar Orokorra izan zen. Bi urte bete ondoren, zein litzateke zuen balorazioa?

- Positiboa, gure lan arloan normalean gauza gutxi egiten delako. Hainbat lan interesgarri egin ditugu eta datorren urteari begira beste proiektu batzuk ditugu eskuartean. Gauza konkretuak daudenean askoz ere errezago lan egiten da. Dena den, bailara mailako elkarte bezala sortu zen Kapirixo eta hainbat herritan oraindik gure presentzia indartu beharra dagoela uste dugu.

- 1996rako zein proiektu dituzue?

- Bueno batzarrean hainbat proiektu aipatu



ziren: Oñatiko Jaturabeko Indarretxea konpondu eta bertan museo antzeko bat egin, Elosu inguruan diren hilerrietan lanak amaitu, Aretxabaletan ziren bainu-etxetako iturri bat berreskuratu, monumentuak seinalizatu, elkartearen boletina kaleratu... Lana ez zaigu falta.

**"1996rako hainbat proiektu ditugu eskuartean. Lana ez zaigu falta"**

**I T U R R I O N E T I K**

**Txirindulari gazteentzako mundial aurreko proba apirilaren 20an Bergaran**

Datorren urteko apirilaren 20an aurre mundialeko gazte mailako txirindulari proba jokatu da Bergaran. 1997an Donostian izango diren Txirindularitza Mundialei begira, gazte mailako hiru proba egitea pentsatu zen. Iazkoa Arrasaten izan bazen ere, 1996koa Bergaran jokatu da eta, azkena berriz, Donostian bertan. Bergaran jokatu den probak 120 Km. inguruko ibilbidea izango du eta helmuga Ibargarai kalean kokatu da. Bertan Estatu osotik etorritako 17-18 urteko 250 txirindulari biltzea espero da. Probaren antolaketa Lokatzaren esku izango da.

**E S A N  
D U T E**

"Jendeaurrean, pribatua eta edzoein tokitan erretzen duten mediku lagunak ditut koadrilan. Gizarteko ordezkari nagusien artean ere batzuk erretzaile borrokatuak dira. (...) Orain dela gutxi, Ramon Etxezarretak artikulu batean adierazten zuen drogazaleek eta alkoholikoek errukia sortzen zutela beren inguruan eta laguntza ematen zitzaiela eta erretzaileek, berriz, jazarpena edo pertsekuzioa sufritu behar izaten dutela. Horra hor paradoxa.

**JUAN LUIS BIKUÑA**  
Kazetaria  
DEIA

"Txikitan eskultura eta plastikarekin izan nuen lehen harremana nire aitarengatik datorkit. Bera arduratzen zen urtero jaiotza jartzeaz eta ni begira geratzen nintzen paperarekin eta igeltsuarekin mendi elurtuak nola egiten zituen ikusten"

**JESUS MARI LAZKANO**  
Pintorea  
DEIA IGANDEA

**NUEVE MESES**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30,  
22.30.

Igandea: 17.00.

Astelehena: 17.00, 19.30,  
22.15Asteartea: 19.30 (Ikuslearen  
eguna).**NADIE ME QUIERE**

Osteguna: 20.00.

**MY FAMILY**

Abenduak 30, 31

**Zinea**

▼▼ **Chris Columbus** zuzendariak komediak ditu gustoko eta honetan ere jenero hori landu du **Hugh Grant** (*Cuatro bodas y un funeral*), **Julianne Moore** (*Vidas cruzadas*) edota **Joan Cusack** (*Two much*) aktore ezagunen laguntzaz. **Samuel Faulkner** (**Grant**) eta **Rebecca Taylor** (**Moore**) senar-emazteek denetik jasan beharko dute **Rebecca** haurdun geratzen denetik. Bion bitzta erabat aldatuko da arlo guztietan ikusleen gozamenerako.

▼▼ **Doris Dörrie** zuzendariaren (*Hombres, bombres...*) filme honetan gaur egungo Alemaniaren erretratu umoretsu eta garratza egiten da. **Fanny** (**Maria Schrader**) gazteak Coloniako aireportuan egiten du lan eta bere gustoko gizon bat topatzeko arazoak ditu...

▼▼ **Francis Ford Coppola**k ekoiztutako filme hau pasa den Donostiako Zine Jaialdian aurkeztu zen, kritika onak jasoz. **Gregory Navak** zuzenduta, latinoek Estatu Batuetan bizi duten egoera isladatzen da. **Esai Morales**, **Jimmy Smits** eta **Edward James Olmos** aktoreak erreperto buruan.

**Deiak**

▼ **Erakusketa.** Bergarako margolarien erakusketa abenduaren 22tik urtarrilaren 1era bitartean Kultur Etxean.


▼ **Mendi irteera.** Pol-Polek abenduaren 31rako gazteentzako mendi irteera antolatu du Aizkorri-ira. Irteera goizeko 8etan autobus geltokitik. Bazkideek 200 eta gaintzekoek 400 pezeta ordaindu beharko dituzte. Izen-ematea Pol-Polen, astelehenetik ostegunera 7etatik 8.30etara.

▼ **Eluska Zabalo Monje**ren pintura erakusketa Naikari tabernan ikusgai abenduan zehar.

▼ **Moda desfilea** antolatu du te Ipintza institutuko ikasleek ostiral honetarako. Arratsaldeko 7etan institutuko aretoan.

**Ogia**▼ **Igandea 24:** Ogizun.**FARMAZIAK**

- ▼ **Ostirala 22:** Puy/Irizar.
- ▼ **Larunbata 23:** Guallar/Amezua.
- ▼ **Igandea 24:** Guallar/Ruiz.
- ▼ **Astelehena 25:** Estella/Morales.
- ▼ **Asteartea 26:** Mozos/Azkoaga.
- ▼ **Asteazkena 27:** Camacho/Esp..
- ▼ **Osteguna 28:** Puy/Corcuera.

Arientza auzoa  
ARETXABAETA*Mitarlegarai**Jatetxea*Gurutze  
Mujikaren  
Pintura  
erakusketa

☎ 79 17 38

*Pepelu***Ilepaindegia**Zurradero, 2 ☎ 76 43 07  
BERGARA**ANTIA****HARATEGIA URDAITEGIA***Txahal, idi, txerri, bildots,  
untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi ☎ 76 15 09

# Gabonetako kontzertua

## Banda, Orfeoia, Orkesta eta Aritzeta izango dira

**Ohikoa** den bezala, Gabonen atarian, Bergarako Udal Musika Banda, Ofefoiak, Aritzeta abesbatzak eta Musika Eskolako Orkesta Sinfonikoak Gabonetako kontzertua eskeiniko dute Udal Pilotalekuan. Bihar larunbata, gaueko 10.30etatik aurrera, talde bakoitzak hainbat pieza interpretatuko ditu eta, kontzertuari amaiera emateko, talde guztiek Verdiren "Aida" operatik hartutako eszena eta martxa handia eskeiniko dute. Alfredo González Chirlaque zuzendariaren hitzetan, "obra espektakularra da benetan. Verdik idatzitako operen artean ezagunenetarikoa da hau eta esan behar da garai batean Wagner eta Verdi zirela opera konpositore onenak".

Aidako bigarren aktoa operaren historiako eszenarik ospetsuenetakoa da, Orkestak faraoia eta Amneris bere alabaren eta faraoiaren kortearen etorrera iragartzen baiti-

**Berogailuarekin zeuden arazoak konpondu dira eta beraz, kalefakzioa egongo da**



Gabonetako kontzertua frontoian egingo da aurten eta ez San Pedron.

gu. Abesbatzek ere bere garrantzia dute eta eszenari amaiera ematen diote.

Verdiren "Aida" eskeintzeko 106 musiko eta 85 kantari inguru arituko dira Alfredo González Chirlaqueren zuzendaritzapean. Orain 6 urteko Gabonetako kontzertuan ere lan bera eskeini zuten. Pare bat hilabete eman dituzte "Aida" pres-

tatzen eta gaur ostirala entsaiu orokorra egingo dute Frontoian bertan.

Gaurko emanaldian, aurkezpen lanetan, Alberto Gorritiberea kazetaria arituko da eta Rufina Olasagasti Kultur gestoreak jakitera eman duenez, kalefakzioa izango da Frontoian, arazoa konpondu dute eta. Era berean, musikari eta abeslariari entzun ahal izateko, garaiz joatea eskatzen zaie ikusleei. Sarrerak Kultur Etxean, Musika Eskolan eta takilan bertan (jaialdia hasi aurretik) jarriko dira salgai 800 pezetatan.

### EGITARAUA

#### Udal Musika Banda

"Errege bidea" A latin fantasy (A. Reed)

**Zuzendaria:**

Alfredo González Chirlaque

#### Aritzeta abesbatza

"Axuri beltza".

(Lorenzo Ondarra)

"It don't mean a thing"

(Duke Ellington)

"Monday's child"

(John Rutter)

"White Christmas"

(Irving Berlin)

**Zuzendaria:**

Izaskun Labaien

#### Bergarako Orkesta Sinfonikoa

"Danse macabre" 3. Poema sinfonikoa (C. Saint-Saens)

**Zuzendaria:**

Alfredo González Chirlaque

#### Bergarako Orfeoia

"Suari kanta"

(David Azurza)

"Christmas cantata" (Samuel Pinkham).

**Tronpeta:**

Miguel Angel Maniega eta

Aritz Kortabarria.

**Tronboia:** Mikel Markiegi

eta Aritz López.

"Jodler"

(Emil Cossetto)

**Zuzendaria:**

David Azurza.

**EXLUKUN**  
**BEREZITASUNAK**  
 Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62  
 BERGARA

**A  
R  
R  
A  
N  
O**

**Taberna**  
 Kruz Gallastegi BERGARA

**ONENA**  
**TINTATEGIA**  
 Barrenkale, 29 BERGARA

## Udalari UNED dela eta

UNEDen asuntoan Udalak duen jokabideari bueltaka eta eta kontuak ez zaizkit ateratzen:

Bat. UNED, bertako euskal departamentua eta gainerakoak oro har, Bergaran izatea gauza ona da herriarentzat. Udalak bultza dezakeen edozein turismo bulegok baino jende gehiago erakartzen du gurera, bestela Bergarara ezertarako etorriko ez litzatekeena. Dendari eta tabernariak badakite asteburuetak UNEDtarrek lagatzen duten diruen berri. Bestalde, guztiok onartzen dugu Bergaran horrelako kultur iharduera bat izatea onuragarri baino ez dela, eta oro har mesede egiten diola herriari Bergara izena probintzi osoan zehar kulturarekin lotzeak.

Bi. Udala, zuzentzen duten agintarien bitartez eta Administrazio Publiko denez, herriaren alde lan egitera behartuta dago. Herria garatzera eta herritarren ongizatera lagunduko duten ekimenei bultza egiteko eta eusteko obligazioa du. Ildo honetatik ezagunak dira diruari erreparatu gabe, beraien alderdien iritziaren aurka nahiz bere burua arriskutan ipiniz, bere herriaren onerako aritu diren alkateak: Maragall Bartzelonako Joku Olinpikoen kasuan, Elorza Kursaalaren kasuan eta gertuago, Bastida Azpeitiako tunelaren kasuan eta Iñarra Antzuolako intumisoen kasuan, bestekak beste.

Ondorioa. Zer egin du Udalak UNEDen alde? Udalak zerbait egin al du euskara departamentuari eusteko? Zer egin du Udalak gainerako departamentuak dauden bezala segi dezatela bermatzeko? Hau da, zer egin du Udalak herriaren onerako? Hala, Udalak zerbait egin al du, interesik txikiena jarri al du Bergarako herria Urbina-Maltzaga autobide famatu horretan pasatzen den herri bat gehiago baino izan ez dadin? Bestela, zein da okerreko premisa?

ELENA LAKA. UNEDEKO IKASLEA

## Ertzantzaren jarrerari buruz

Goierri aldeko herri txiki honetan izandako gertaerak oso latzak izanik, herri honetako errealtate gordina nolakoa den adierazteaz gain, ertzantzak daraman bideak nora garamatzen (hots, enfrendamendura) erakusten digu eta erreflesiorako bideak zabaldu behar lizkiguke.

- Alde batetik, Atutxak Ertzantza inora ez daraman bidera zuzendu du, beraiek deitu ohi duten "polizia integral" delako hori ez bait du bilakatu herri honen hainbat sektoreren (gazte, langile, ikasle...) aurka jotzen duen Guardia Civil edo Policia Nacionalaren oinordeko huts baino.

- Bestaldetik, dagokionari galdera bat luzatu nahi genioke (kasu honetan Atutxa eta Ertzantza, polizia errepresibo huts bilakatzen ari direnei hain zuzen ere); zergatik hainbestearainoko jazarpen poliziala euskal gaztediari orohar edota (kasu honetan Mikel Otegi gazteari) Ertzantzaren begirada, presio, katxeo... jasaten ari garen hainbat eta hainbat bergarar gazteri? Egoera jasanezin honi erantzuna eman nahia izan da, hots, jazarpen polizial jasanezin bati irtenbide bat eman nahia eta testuinguru honetan ulertu behar ditugu gertaera latz hauek.

- Ezin ahaztu bestaldetik (Mikel Otegi eta bi ertzain horiek Atutxak daraman irtenbiderik gabeko jarreraren biktimak direla jakinik) Ertzantzaren eskuetatik ateratako bala edo pilotakada batez hil diren euskaldunak, eta noski, hauei eman zaien tratamendu informatiboa oso ezberdina izan da hildakoak ertzainak direla gertatu denean, espainiar lege ustel eta inposatua betiereko izatera ahalegintzen diren mertzenarioak direnean.

- Guzti honekin Bergarako Jarraik Ertzantzari bere jokabide zapaltzailea alde batera utz dezala esijitzen dio, euskal gaztediak ez bait ditu ahazten eta are gutxiago erantzunik gabe uzten bere aurkako eraso faxistak.

- Azkenik, Bergaran bertan bizi dugun zipa-

ioen agobioaren aurrean gure erantzunik argien baina gogorrena erakutsiko diegula beraien jarre-rra aldatu ezean, gogoratuz Mikel Otegi gaztea eta bi ertzainak Atutxa borroaren biktima huts direla eta euskal gazte sektore zabalek bizi duten egoera jasanezinaren erakusgarri.

"Espainiak egunen batean Catalunya, Gali-ziari... Euskadiri autonomia zabal bat eskeiniko die. "Unionistek" orduan, erregularrez osaturiko eta Espainiak armaturiko eusko ejerzitza osatuko dute eta berorrek inongo eruririk gabe "euskal errebelde separatisten" aurka joko dute... eta orduan, beraiek -gure aberkideek-afusilatuko gaituzte... ez diogu gezurrik, ez horixe" (Eli Gallastegik 1933. urtean esana).

Gora Euskadi askatua, Gora Euskadi sozia-lista. Gora Euskadi ta askatasuna.

BERGARAKO JARRAI


## Bergarako kabalgata

Zazpi urteko neskatua nauzue, iaz Errege bezpera zela eta joan ginen, ahizpa eta biok gurasoekin batera Kabalgata ikustera. Jarri ginen bakoitza norberaren erregearen aurrean, nerea Baltasar da, hau agurtzeko asmoz. Tokatu zitzaizdanean konturatu nintzen zapatila deportiboak eta kaltzetinak nere lehengusuek erabiltzen dituzten modukoak zituztela, bai nere erregeak eta baita besteek ere. Erlojua eta guzti, dirudienez, Oriente ez da nik pentsatzen nuena. Ez nekien nik beltzak, beltzak ez direla, edo behintzat haien gorputz dena beltza ez denik, zeren nere erregearen eskuak behintzat gureak bezalakoak ziren. Ez nekien ezta, haien beltzasuna desagertzen dela muxu emanez gero. Ez dakit etorri zirenak erregeak edo laguntzaile zakar batzuk ziren.

Ea aruten benetakoak datozen.

M. G.

## Tiira biraka



## UNAI AZKARATE

◆ **Liburutegiko ordutegia**

Kultur Etxeko udal liburutegia abenduaren 22tik urtarrilaren 7ra arte (biak barne) goizez bakarrik izango da zabalik, 8etatik ordubietara.

◆ **Mus txapelketa Batzokian**

Mus txapelketa azkarra jokatu da abenduaren 29an 16.30etan Batzokiko tabernan. Izen-ematea (1.500 pezeta bikoteko) Batzokiko tabernan.

**HILDAKOAK**

**Juan Jauregi Mujika**

Abenduak 14, 69 urte

**Juana Badiola Lete**

Abenduak 15, 75 urte

**Ciriaca Loidi Astigarraga**

Abenduak 17, 81 urte

**JAIOTAKOAK**

**Unai Egaña Morras**

Abenduak 7

**Saioa Agirre Iturrikastillo**

Abenduak 9

**Txomin Larrañaga Zabala**

Abenduak 11

**Dorleta Narbaiza Urrestarazu**

Abenduak 13

**Jon Marzo García**

Abenduak 14

# UNED inguruan eztabaida luzea asteleheneko Plenoan

**Asteleheneko** Plenoan, erregu eta galderetan, eztabaida gogorra izan zen Victoriano Gallastegi alkatea eta HBko zinegotzien artean UNEDeko Euskal Kultur Departamentuaren itxieragatik. Plenoan kontsultatu barrik UNEDeko berregituraketari baietza ematea leporatu zioten alkateari HBko zinegotziek. Gallastegiren hitzetan, Bergarako alkatea Patronatoko kidea da Udalak UNED zentroari ematen dion dirulaguntzagatik, aportazio horren kontrola besterik ez duelarik. Bestalde, oposizioak Patronatoko aktak eskatu zizkion baina publikoak ez zirela erantzun ziotela esan zien HBko zinegotziei.

HBko zinegotziek zentroaren etorkizuna jokoan zegoela eta berak horren erantzunkizun politikoa zuela gogoratu zioten alkateari. Agurne Barrusok behin eta berriz Juan Martin Elexpuru EKDko irakaslearentzat



UNEDeko berregituraketaren kontrako manifestazio bat.

hitza eskatu ondoren, alkateak eman egin zion. Elexpuru EKDk azken 19 urteotan egindako lana azpimarratu ondoren, Sacristán jostore berria kritikatu zuen, erdaldun hutsa eta edukaziorik ez duela esanez. Era berean, Udal Gobernuako alderdi abertzaleen jarrera kritikatu zuen eta, sinboliko baten ere, Patronatoko alkatearen ezezko botoa espero zuela esan zuen. Alkateak, berriz, irteera bat topatzeko jostioetan

ari direla esan zuen baina ez zuen ezer gehiago zehaztu eta eztabaida luzearen ondoren beste

Asteartean, UNEDeko EKDko Juan Martin Elexpuru, Jerardo Elorza, Tere Irastorza eta Xabier Pardo irakasleek kaleratze karta jaso zuten. Elexpuru azaldu zuenez, kaleratutako irakasleek epaitegietara jotzeko asmoa dute dagozkien urteko lan egunen errekonozimendua lortu ahal izateko.



San Martin plazan jarritako kanpin dendak.

## Presoen aldeko akanpada

Begarako Amnistiaren Aldeko Komiteak deituta, asteburuan presoen aldeko kontzentrazioa izan zen Plazan. Larunbat eguerditik igande arratsaldera bitartean, presoen euskal herriratzea eskatzeko egindako kontzentrazioan, 35 lagun inguruk hartu zuten parte. Partaideek baraualdia egiteari uko egin zioten egiten zuten eguraldia zela medio. Bestalde, Amnistiaren Aldeko Komiteak idatzi bat bidali digu, larunbat gauean botatako etxafleroak kartzeletan egiten diren errekuentoen adierazgarri egin zirela azalduz. "Begarako herriari honelako gauza batek suposatzen duena erakutsi nahi izan diogu ekintza honekin". Astebukaeran presoen aldeko pintadak azaldu ziren herriko hainbat tokitan.

## Monzonen artikuluen bilduma liburua aurkeztu zen asteartean

"Langosta baten inguruan" Telesforo Monzonek idatzitako hainbat artikulua biltzen dituen liburuaren aurkezpena egin zen asteartean Olaso Dorrean. Jardun Elkarteak antolatutako ekitaldian Maria Josefa Ganuza Monzonen alarguna, Koldo Izagirre liburuaren hitzaurrea egin duena, Juan Martin Elexpuru idazlea eta Xabier Mendiguren Elkarreko ordezkaria izan ziren. "Langosta baten inguruan" liburuan Telesforo Monzonek 1948-1961 bitartean Alderdi aldizkari klandestinoan idatzitako artikulua biltzen dira. Guztira 17 artikulua biltzen dira liburuan eta aurkezpen ekitaldian horietako bat, "Bergarako jaiak eta Lapurdiko lusagarrak" izena duena, irakurri zuen Juan Martin Elexpuruk. Monzonek herriko ohitura eta gertaerak kontatzeko zuen maisutasuna eta umore fina agerian uzten omen dute artikuluko, Koldo Izagirre liburuaren prestatzaileak adierazi zuzenez.



Olaso Dorrean egindako aurkezpenean Josefa Ganuza Monzonen alarguna izan zen.



Iralako edifizioa egoera kaskarrean dago gaur egun.

## Zerbitzu bulegoak egin daitezke Iralako edifizioan

### *Inguruko bizilagunek Iralaren egoera salatu dute*

Udala eta Irala zine aretoko ja-beak negoziatuz dabilta, Iralako edifizioak hirigintza planean duen kalifikazioa aldatu eta bertan bulego eta zerbitzutarako eraikuntza egin ahal izateko. Jose Antonio Etxeberria Hirigintza Batzorde buruaren hitzetan, "Iralaren jabe diren Irizar eta Quemadarekin izan gara eta badirudi zine aretoa aktibitatez aldatzeko asmoa dutela. Baina oraindik ezin da ezer gehiago aurreratu".

Gai honekin lotuta, Simon Arrieta plazako 3. zenbakiko bizilagunek protesta idatzi bat aurkeztu dute Udalean zinearen gaur egungo egoera salatu. Etxeberriak azaldu digunez, "horrela da bai. Idatzi hori jaso bezain laister zinea ikus-

ten izan ginen eta benetan egoera penagarrian dago, beheko partea batez ere. Hezetasun haundia dago, itokinak, arratoiak daudela esaten dute... zikinkeria bat da".

Udalak informea egin eta Iralaren jabe horren berri eman die, hartu beharreko neurriak har ditzaten. Jose Antonio Etxeberriak adierazi digun bezala, "lokalaren osasun egoera ikusita, abalik eta aguruen eskua sartu behar zaio gai horri". Jabeekin hitzarmena lortu bezain laister, lurzorua berkalifikatu eta bulego eta zerbitzutarako edifizioaren eraikuntza has daiteke.

Irala zinea Gipuzkoako haundienetakoa izan zen martxan zegoenean. 1986. urtean itxi zen. Harrezkero ez da ezertarako erabili.

## IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

## BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

*Sukalde eta bainu enzimerak*

Uriarte, 8 BERGARA

☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxes: 76 04 77

## BOLINTXO

### Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA  
Ibarrekruz, 4 EIBAR  
☎ 76 63 42 ARRASATE





Kanela oparidendako eskaparate saritua.

## Kanela oparidendak irabazi du aurtengo eskaparate lehiaketa

*Ninika bigarren eta Casa Aguirre hirugarren*

Kanela oparidendak irabazi du Udaleko Kultur Zerbitzuak antolatutako Eskaparate Lehiaketaren bosgarren edizioa. Kanelak 60.000 pezeta eta Udaleko plaka eskuratuko ditu sari gisa. Bigarren tokian Ninika loradenda sailkatu da (30.000 pezeta) eta hirugarren tokia, berriz, Casa Aguirre jantzendarentzat (15.000 pezetako saria) izan da. Aurtengo edizioko epaimahaia Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Itsasketako Kamarako, Beart Bergarako artisten elkarteko eta Bedelkar Bergarako dendarien elkarteko kideek osatu dute. Guztira, 20 komertziok hartu dute parte aurtengo Eskaparate Lehiaketan. Epaimahaia dendariak erakutsitako orijinalitatea eta maila

altua azpimarratu du. Bihar larunbata, Kultur Taldeak, Jaiak eta Gazteria batzordeburua den Luis Abajok sariak banatuko ditu.

Iazko eskaparate lehiaketan bigarren saria lortu ondoren, Kanela oparidendak garaipena lortu du aurtengoa. Uxue eta Itsaso Azkarate ahizpek dendan salgai dituzten opariak erabili dituzte eskaparate apaintzeko orduan.

Bestalde, Bedelkarrek antolatutako bozketa popularrean ere Kanela nagusitu da, Egiluz perfumaria eta Ninikaren aurretik. Botoa eman zuten artean Bedelkarrek zozketatutako 10.000 pezetako erosketa bonoa Maria Lourdes Alberdi bergararrari suertatu zaio. Boto dextente jaso dira.

### ◆ Amnistiaren Aldeko Komitearen deia

Begarako Amnistiaren Aldeko Komiteak dei egiten du hilaren 24an abestera irtetzeko. Arratsaldeko 3retan bazkaria izango da Artatsen eta txartelak (1.000 pezeta) Pol-Polen eta Arrano tabernetan jaso daitezke. Era berean, Gabon zahar egunean, ordubatean, urteberriari ongi-etorria emateko brindisa egingo da.

### ◆ Jardunen begirale eta zuzendari ikastaroa

Jardun elkarteak begirale eta zuzendari ikastaroa antolatu du. Klaseak urtarrietik maiatzera bitartean izango dira asteburuetan. Matrikulak 25.000 pezeta balio du eta izen-ematea Jardun elkartearen (76 08 19 telefonoan) egin daiteke.

### ◆ EAJren batzarra asteazkenean

Begarako EAJk ez-ohizko Uri-batzarra egingo du datorren asteazkenean, hilak 27, arratsaldeko 8etan Batzokiko aretoan. Alderdikide guztiei bertan parte hartzeko dei egiten zaie.

### ◆ Diapositiba lehiaketako irabazleak

Jose Luis Feok irabazi du Bedelkarrek eta Pol-Pol Argazki Taldeak antolatutako herri mailako diapositiba lehiaketa. Bigarren saria Dionisio Nogales eta Jaime Garziarentzat izan da eta hirugarren saria, berriz, Ion Marcó eta Juanjo Nogueirasek eskuratu dute. Guztira, 18 lagun aurkeztu dira diapositiba lehiaketa honetara.

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

*Tomas Gezalaga*

ANTZUOLA BERGARA

- Apaintetarako eta industriadako pinturak
- Paper margotuak
- Mokitak eta tapizatuak

**Masterreka 24**

*Nepal, India eta Hego Amerikako jantziak*

Masterreka, 24 BERGARA

HARATEGIA- URDAITEGIA

**Sebastian Imaz**

**Bildotsa, txahala eta oilaskoak**

Aranerreka, 1 ☎ 76 32 67 BERGARA

## ABENDUAK 22 OSTIRALA

• **Moda desfilea** Ipintza institutuan arratsaldeko 7etan. Sarrera: 400 pza. Aldez aurretik hartu ezker, 300 pza.

## ABENDUAK 23 LARUNBATA

• **Gabonetako I. Banakako Pala Txapelketa** abenduaren 23tik urtarrilaren 5era Zabalotegin. 15 urtetik gorakoentzat.

## ABENDUAK 24 IGANDEA

• **Gabon kantak.** Goiz eta arratsalde, ikastetxeetako haur eta ikasleak eta herriko beste zenbait taldetakoak Gabon eskean irtengo dira kalera.



## ABENDUAK 26 ASTEARTEA


• **Deba Garaiko herrien arteko I. Olinpiada** abenduaren 26tik 30era. Areto futboleko partiduak abenduaren 26an Oñatiko kiroldegian.

• **Haurrentzako ur jolasak** goizeko 10.30etatik ordu batera igerilekuetan. Sarrera doan Udal Kirol Zerbitzuko bazkideentzat eta 100 pezeta bazkide ez direnentzat. 14 urtetik beherakoentzat.

Jarduneko Gazte Taldeak antolatuta, **11 urtetik 14 urtera bitartekoei zuzendutako jolasak** Kartzela Zaharrean 16.30etan.

• **Futbolari buruzko mahaingurua.** Berrigarak bere 5. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, "Futbolak azken

urteotan izandako aldaketak" izenburuko mahai-ingurua arratsaldeko 7.30etan Miguel Altuna institutu zaharreko areto nagusian. Partaideak: Bittor Alkiza Athleticetako jokalaria, Periko Alonso Eibarko entrenatzailea, Agustin Aranzabal Realeko jokalaria, Xabier Azkargorta Txileko futbol selekzionatzailea eta Luis Garmendia Sestaoko jokalaria. Moderatzailea: Pedro Mari Goikoetxea.



• **Euskara batua eta euskalkiei buruzko mahaingurua** arratsaldeko 7etan Antzuolako Udaletxean. Partaideak: Jon Sarasua, Jerardo Elorza, Xabier Kintana eta Juan Luis Goikoetxea. Moderatzailea: Arantzazu Loidi. Idolaz Antzuolako euskara elkarteak antolatuta.

## ABENDUAK 27 ASTEAZKENA

• **Haurrentzako ur jolasak** 10.30etatik ordu batera igerilekuetan.

• **Deba Garaiko herrien arteko Olinpiada.** Saskibaloiko partiduak Eskoriatzako kiroldegian.

• **Haurrentzako jolasak** Kartzela Zaharrean 16.30etan. Jarduneko Gazte Taldeak antolatuta.

• **Mahaingurua.** Berrigarak antolatuta, "Informazio lokala komunikabide handitan" mahaingurua arratsaldeko 7.30etan Miguel Altuna institutu zaharreko areto nagusian. Partaideak: Julian Beloki (Euskadi Irratiko zuzendaria), Martin Garitano (Egineko erredaktore burua),

Elixabete Garmendia (ETBko Bertatik bertara saioko koordinatzailea), Alberto Gorritiberea (Loiola Herri Irratiko Goiziru magazineko arduraduna) eta Martxelo Otamendi (Euskaldunon Egunkariako zuzendaria). Moderatzailea: Miguel Angel Elkorobereibar (Berrigarako zuzendari ohia).

• Aurretik, arratsaldeko 7etan, **Kazetaritza eta Erretratu Zaharren lehiaketako sari banaketa** egingo da Miguel Altuna institutuko aretoan.

## ABENDUAK 28 OSTEGUNA

• **Ur jolasak** Agorrosingo igerilekuetan. 10.30etatik ordu batera.

• **Deba Garaiko herrien arteko Olinpiada.** Eskubaloiko partiduak Bergarako kiroldegian.

• Jarduneko Gazte Taldearen eskutik, **haurrentzako jolasak** Kartzela Zaharrean 16.30etan.

• **Gabonetako gazte mailako futbol txapelketa.** Bergara-Aloña Mendi 5etan Ipintzan.

• **Mahaingurua.** "Euskal musika gaur egun" izenburuko mahaingurua 19.30etan Miguel Altuna institutuan. Partaideak: Mikel Markez, Exkixu taldeko Alex kantaria, Maixa eta Itziar, EH Sukarrako Norton eta Sorotan Beleko Gorka kantaria. Moderatzailea: Joseina Etxeberria Euskadi Gazteko esataria. Berrigarak antolatuta.

• **Oihulari taldearekin kafe antzerkia** gaueko 9etan Pol-Polen.



• Jarraian, gaueko 10etan, **rock jaialdia Xabier Montoia eta Deabruak Teilatuetan taldearekin** Kartzela Zaharrean. Sarrera: 400 pezeta.

• **Idolazek antolatuta, txiste afaria** Antzuolako Olalde elkartearen gaueko 9etan. Txartelak Larrea tabernan salgai.

## ABENDUAK 29 OSTIRALA

• **Deba Garaiko herrien arteko Olinpiada.** Igeriketa probak eta pala partiduak Arrasateko kiroldegian.

• **Haurrentzako jolasak** 16.30etan Kartzela Zaharrean.

• **Gabonetako gazte mailako futbol txapelketa.** Real Sociedad-Eibar Urko 5etan Ipintzan.

• **Bizar-Zuriren kalejira** arratsaldeko 7etan Errotalde jauregitik hasita.

• **Antzerkia.** Karraka taldearen "Pecata minuta" antzezlan (euskaraz) gaueko 10.30etan Novedades aretoan. Sarrera: 500 pezeta.



• **Antzuolako Idolaz elkarteak antolaturik, umeen eguna Antzuolan.** Arratsaldeko 3retan antzerkia liburutegian, 4retan pelikula zine aretoan eta ondoren txokolate jana liburutegiaren aurrean.

## ABENDUAK 30 LARUNBATA

• Jarduneko Gazte Taldeak antolatuta, **11-14 urteko neska-mutikoei zuzendutako jolasak** 16.30etan Kartzela Zaharrean.

• **Gabonetako gazte mailako futbol txapelketaren finala** 15.45etan Ipintzan.

• **Zinea:** "My family". 17.00, 19.30, 22.30. Novedades aretoan.

## ABENDUAK 31 IGANDEA

• **Pol-Polek gazteentzako antolatutako mendi irteera Aitzgorrira.** Irteera goizeko 8etan Beheko Estaziotik. 200 pezeta bazkideentzat eta 400 gainontzekoentzat. Izen-ematea Pol-Polen.

• **Zinea:** "My family". 17.00.

• **San Silvestre kross herrikoa** arratsaldeko 5etan. Irteera Plazatik. Kirol Zerbitzuak (77 91 67 telefonoa) eta Zaleak atletiko taldeak (76 20 31) antolatuta. Izen-ematea doan (karrera hasi baino ordu erdi lehenago itxiko da).



## URTARRILAK 1 ASTELEHENA

• **Zinea:** "Jade". 17.00, 19.30, 22.15.

## URTARRILAK 2 ASTEARTEA

14 urtetik beherakoei zuzendutako Gabonetako parkea urtarrilaren 2tik 5era Labegaraietako kiroldegian. 15.30etatik 18.30etara. Era guztietako jolasak eta hainbat tailer Xipizaroren eskutik.

Eguneroko sarrera: 100 pezeta. Haur txikiendako joku bereziak izango dira. Derrigorrezkoa izango da kirol oinetakoak eramatea.

• **Zinea:** "Jade". 19.30 (Ikuslearen eguna).

## URTARRILAK 3 ASTEAZKENA

• **Haurrentzako Gabonetako parkea** kiroldegian 15.30etatik 18.30etara. Sarrera: 100 pezeta.

## URTARRILAK 4 OSTEGUNA

• **Haurrentzako Gabonetako parkea kiroldegian.** 15.30etatik 18.30etara. Era guztietako jolasak eta tailer ezberdinak. Sarrera: 100 pezeta.

• **Zine-kluba:** "El maestro de marionetas". 20.00.

## URTARRILAK 5 OSTIRALA

• **Gabonetako parkea kiroldegian.** 15.30etatik 18.30etara. Sarrera: 100 pezeta.

• **Zinea:** "El día de la bestia". 22.30.

• **Erregeen kabalgata** herriko kaleetan zehar arratsaldeko 7etatik aurrera. Hasiera Mizpirualde egoitzaatik.

• **Kotiloia.** Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoak antolatutako kotiloia Oropendola orkestarekin gaueko 12.30etatik goizeko 4.30ak arte Udal Pilotalekuan. Sarrerak 1.000 pezetan salgai Maxim's eta Ariznoa tabernetan, Euskadiko Kutxan edota Plazan.

## URTARRILAK 6 LARUNBATA

• **Zinea.** "El día de la bestia". 17.00, 19.30, 22.30.

## URTARRILAK 7 IGANDEA

• **Zinea.** "El día de la bestia". 17.00, 19.30, 22.15.

# Gabonak gabon

## Iritsi dira Gabonak



Igandean, Gabon egunean, haurrak, gazteak zein nagusiak kalera irtengo dira gabon kantuek abestera.

**Batzuentzat erlijio kutsurik handiena duten egunak, beste zenbaitentzat, besterik gabe, oporrak. Gabonak: Olentzero eta erregeak etorriko diren ilusioa, familia bilduko den sasoia, inoiz baino gehiago edan eta jaten den garaia... baina baita jendea inoiz baino bakarrago sentitzen den unea ere.**

Duela zenbait urte arte, Gabon Zahar eguna etxekoekin egoteko eguna zen. Kanpoko ohituraren eraginez-edo, gaur egun hamabiak jotakoan asko dira urte berria ospatzera kalera ateratzen direnak. Badirudi, Gabon egunean ere gero eta ge-

hiago direla afalostean kanpora irtetzen hasi direnak. Ondorioz, gero eta taberna gehiago dira irekitzen dutenak.

Aldoka-Maldoka taberna, zabaldu zenetik irekitzen dute Gabon egunean: "etxean kartetana eta aspertu egiten gine-

nez, afaldutakoan Eskoriatzara joaten ginen martxa bila. Hori dela eta taberna ireki nuenetik Gabon gau guztietan irekitzen dugu". Arrano ere horregatik ireki zen: "ateratzen den diruagatik ez, etxean egotea agobioa delako baizik. 12.30ak aldean ireki eta 4ak arte edo egon zen zabalik". Pol-pol ere iaz ireki zuten lehen aldiz. "Gabon eguna zapatuan tokatu zenez irekitzea erabaki genuen. Zapatu normal batean beste jende ez, baina asko ibili zen. Hori bai, obiko zapatu batean baino giro hobe, politagoa zegoen.

Jendea pozik ikusten zen". Usoan diotenez, horrelako egunetan edari desberdinak edaten dira: "egun desberdina izanik, gehiago gastatzen da, normalean garagardoa edaten duenak horrelakoetan txanpana edaten du".

Aurten ere Aldoka-Maldoka, Oilagorra, Arrano, Usoa, Etxagi eta Pol-Polek ireki egingo dituzte ateak. Hala eta guztiz ere, gehiago dira zabalduko ez dutenak, Ariznoa esaterako: "egun horretan inork ez du lanera etorri nahi eta planteatu ere ez dugu egin taberna irekitzea".



**AMPARO VEGA**

"Niretzat Gabonak Jaungoikoarekin egoteko eta bakea behar dugun garaia da. Leben nire ustez, familiarragoak eta erlijio kutsu bandiagokoak ziren. Asko gustatzen zitzaizkidan, baina orain tristeagoak direla iruditzen zait"




**JOSE LUIS GANDIAGA**

"Familiarekin elkartzeko eta egoteko egunak dira, egun bereziak. Bazkariak, afariak... Tabernaria naizenez, beste egunetan ez dut familiarekin borrela egoteko aukera gehiegirik eta asko gustatzen zaizkit".



**IZARRA ARRIARAN**

"Niretzat ez dute erlijio kutsurik eta oporrak esan nahi dute. Hipokresia hutsa dira. Gabon egunean etxean tradizioagatik egoten naiz, baina nabia dut irtetzea. Etxean bakarrik afalduz gero ez nuke traumarik izango".



**DAVID BOUZAS**

"Niretzat familian pasatzeko jaiak dira. Txikitan esandako guztia sinisten nuen, orain, ostera, badakit ez direla egia eta ez du hainbeste xarma. Leben etxean egoten nintzen baina orain Gabon gauean irten egiten naiz".

# Zuretzat zer dira Gabonak?

**GABON HAUETAN MULTIOPTICAS-ERA ETORRI ETA ERREGE BAT BEZALA GELDITU.**

**1.ak ZERBITZU OPTIKOETAN**

PREZIOA : 13.950

GABONETAKO PREZIO BEREZIA  
**9.500**

PREZIOA : 11.000

GABONETAKO PREZIO BEREZIA  
**8.500**

PREZIOA : 12.500

GABONETAKO PREZIO BEREZIA  
**8.900**

**Ray-Ban**

PREZIOA : 16.900  
GABONETAKO PREZIO BEREZIA **8.800**

PREZIOA : 15.500  
GABONETAKO PREZIO BEREZIA **7.500**

PREZIOA : 29.670  
GABONETAKO PREZIO BEREZIA **15.000**

**Eta gainera...**

6 HILABETETARAKO UKIPEN LENTEAK EROSTEAGATIK TXAMARRA OLINPIKO HAU OPARITZEN DIZUGU.

**MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA**

BERGARA    ARRASATE    ORDIZIA

**MULTIOPTICAS EIBAR**

Bidebarrieta 2 - EIBAR - ☎. 100522

# Gabonen inguruan hizketan

# Mirentxu Goñi

**Miren Goñik, etnografi- an aditua denak, lehe- nagoko eta gaur egun- go Gabonen inguruan hitz egin digu. Poliki- poliki galtzen doazen ohitura zaharrei buruz eta telebistaren era- ginez, batez ere, bizi- modu urbanoak ekarri dituen aldaketei buruz jarduten du. Antzinako Gabonetako hainbat ohitura ere kontatu dizkigu.**

**- Gabonak aldatu egin dira?**

- Bai eta ez. Gabon eguna eta Natibitate eguna ez dut uste asko aldatu direnik; Urte Zahar eta Urteberri eguna dira aldatu direnak, jendea oportetara ere egun horietan joaten da.

**- Zertan dira desberdin?**

- Orain erlijio kutsua galdu eta pagano bihurtzen ari dira, baina oraindik ere familiaren ezaugarri dira; gizartea aldatzen ari da, familia zentzua ere bai, eta Gabonek familia kutsua gordetzen badute ez da gutxi.

**- Gabon eguna lehen nolakoa zen?**

- Gabon eskean orain baino gehiago ibiltzen ziren, ikaragarria zen. Neskak zestuarekin eta mutilak meriendako zorroarekin etortzen ziren, batzuk jaiotza eta guzti. Etxekoek pikuak, intxaurrek eta pezeta bat edo ematen zizkieten...



"Gizartea aldatzen ari da, familia zentzua ere bai, eta Gabonek familia kutsua gordetzen badute ez da gutxi".

**"Gabon eskean orain baino gehiago ibiltzen ziren, ikaragarria zen. Neskak zestuarekin eta mutilak meriendako zorroarekin etortzen ziren, batzuk jaiotza eta guzti"**

**- Gabon gauean zer egiten zen?**

- Aza olioak jaten ziren (olioa gauza handia zen, baserrietan ez baitzen egoten), gero kalean azalorea sartu zen; gainean bakailaoa (baserrian) eta bisigua (kalean) jaten zen; eta sagar erreak, intxaursaltsa eta konpota. Ardoa edaten zen (hiletetan eta bakarrik edaten zen) eta zuria (anisa) eta gorria (koñaka) ere bai. Etxeetan jende asko biltzen zen, tertulia egiteko gogoia egoten zen, astia ere bai... Kantatu ere asko

egiten zen.

Baserritarrak urteko alokairua Gabon egunean ordaintzen zion nagusiari. Diruarekin batera, besteak beste, kapoia eta dozena bat arraultza ematen zizkion. Nagusiak maizterrari, berriz, Santo Tomas egunean bakailao lehorra ematen zion eta bakailao hori zen baserrian jaten zena.

Telebistaren eraginez eta, egiten diren gauzetan (zuhaitza, kotiloiak, e.a.), jate kontuetan, e.a. ohitura berriak sartu eta sartzen ari dira, normala da. Denborarekin gureganatu egingo ditugu eta azkenean geure izango dira.

**- Lehengo zenbait ohitura kontatuko diguzu?**

- Ogi salutadoriarena, esaterako: Gabon egunean jaten hasi aurretik aitalak baserriko ogiari buelta eman, mun eman, kozkor bat kendu eta lihozko mantelpean jartzen zuen; amak arreoko komodako kajoian sartzen zuen. Hurrengo urtean ateratzen zenean ogia lizuntzeke egoten zen. Txakurrak amorrua bazuen berari ematen zitzaion...

Egur sunbila beheko sutan jarri eta afalostean, kantatu ostean, ganadua atarira atera eta gainetik pasatzen zen ganaduak osasuna izateko. Urteberri egunean, itzalita zegoela, hautsa ikuiluan botatzen zen ganadua ez galtzeko...

# urteurreneko ekitaldiak

abenduak 26, 27 eta 28

Berrigarak

5

urte

1990, abenduak 14 • 1995, abenduak 14

BERRIGARA

GERTU



Zubillaga industrialdea, 9  
Tfnoa: 78 33 09  
Fax: 78 31 33  
ONATI (Gipuzkoa)

Santiago, 29  
Tfnoa/Faxa: 945 - 28 67 13  
GASTEIZ (Araba)

INPRIMA TEGIA

ABENDUAK

28

OSTEGUNA

Rock

JAIALDIA

**Xabier Montoia**

**Deabruak Teilatuetan**

**Ordua:** 22.00

**Tokia:** Gartzela Zaharra

**Sarrera:** 400 pzta.

ABENDUAK

26

ASTEARTEA

MAHAINGURUA

**Futbol profesionalak izan dituen aldaketak**

**Parte hartzaileak:** Agustin Aranzabal, Realeko jokalaria.  
Bittor Alkiza, Athletic-eko jokalaria. Luis Garmendia,  
Sestao taldeko jokalaria. Periko Alonso,  
Eibar taldeko entrenatzailea. Xabier Azkargorta,  
Txileko selekzionatzailea.

**Moderatzailea:** Pedro Mari Goikoetxea, ETBko kazetaria.

**Ordua:** 19.30

**Tokia:** Miguel Altuna institutu zaharreko aretoa

ABENDUAK

27

ASTEAZKENA

MAHAINGURUA

**Informazio lokala komunikabide handietan**

**Parte hartzaileak:** Alberto Gorritiberea, Loiola Irratiko  
Goiziru magazineko arduraduna. Julian Beloki, Euskadi Irratiko  
zuzendaria. Elixabete Garmendia, ETBko Bertatik bertara  
saioko koordinatzailea. Martin Garitano, Egin egunkari  
erredaktore burua. Martxelo Otamendi,  
Euskaldunon Egunkariako zuzendaria.

**Moderatzailea:** Miguel Angel Elkoroberezibar,  
BERRIGARA astekariko zuzendari ohia.

**Ordua:** 19.30

**Tokia:** Miguel Altuna institutu zaharreko aretoa

ABENDUAK

28

OSTEGUNA

MAHAINGURUA

**Euskal musika gaur egun**

**Parte hartzaileak:** EH Sukarra taldeko Norton.  
Maixa eta Itziar. Mikel Markez. Exkixu taldeko Alex kantaria.  
Sorotan Beleko Gorka kantaria.

**Moderatzailea:** Joseina Etxeberria,  
Euskadi Gazteko esataria.

**Ordua:** 19.30

**Tokia:** Miguel Altuna institutu zaharreko aretoa

## Abenduak 26 asteartea: FUTBOLARI BURUZKO MAHAINGURUA

### *Futbol profesionalak izan dituen aldaketak*

- **Ordua:** 19.30
- **Tokia:** Miguel Altuna institutu zaharreko aretoa
- **Parte hartzaileak:**
  - **Agustin Aranzabal**, Realeko jokalaria
  - **Bittor Alkiza**, Athletic-eko jokalaria
  - **Luis Garmendia**, Sestao taldeko jokalaria
  - **Periko Alonso**, Eibar taldeko entrenatzailea
  - **Xabier Azkargorta**, Txileko selekzionatzailea
- **Moderatzailea:**
  - **Pedro Mari Goikoetxea**, ETBko kazetaria



**Pedro Mari Goikoetxea**  
Moderatzailea

"Futbolaren araudian egindako aldaketak (gehienak mesedegarri izan direnak), klubek elkarte anonimoak izateko egindako berregituraketa, azkenaldian futbolak izan duen gorakada, gero eta emakume gehiago doazela futbolera edota jokalarien kontratoak apurtzeko dauden klausulak izango ditugu mintzagai astearteko mahainguruan. Bestalde, Bosmanen kasuak zeresan ugari emango du etorkizunean, Europako Ekonomi Elkarteko jokalaria ez baitira atzerritartzat hartuko hemendik aurrera eta horri buruz ere jardungo dugu. Dena den, futbolari buruz jakin nahi duzuen guztia galdetzeko aukera izango duzue".

## Abenduak 27 asteazkena: KOMUNIKABIDEEI BURUZKO MAHAINGURUA

### *Informazio lokala komunikabide handietan*

- **Ordua:** 19.30
- **Tokia:** Miguel Altuna institutu zaharreko aretoa
- **Parte hartzaileak:**
  - **Alberto Gorritiberea**  
Loiola Irratiko Goiziru magazineko arduraduna
  - **Julian Beloki**  
Euskadi Irratiko zuzendaria
  - **Elixabete Garmendia**  
ETBko Bertatik bertara saioko koordinatzailea
  - **Martin Garitano**  
Egin egunkariko erredaktore burua
  - **Martxelo Otamendi**  
Euskaldunon Egunkariako zuzendaria
  - **Miguel Angel Elkoroberezibar**  
Berrigara astekariko zuzendari ohia



**Miguel Angel Elkoroberezibar**  
Moderatzailea


"Oso ezaugarri ezberdinetako komunikabideek hartuko dute parte mahainguru honetan; bakoitzak bere enpresa-egitura, helburu, zabalkunde-eremu, urteetako esperientzia eta izaera propioa du. Hau honela izanik, ez da gure asmoa bata bestearekin konparatzea, baizik eta bakoitzaren errealitatetik herrietako informazioak edo informazio lokalak zein leku, garrantzi eta tratamendu duen ezagutzea eta herri komunikabideak sortzeak nola eragin dien jakitea".



**Abenduak 28 osteguna: EUSKAL MUSIKARI BURUZKO MAHAINGURUA**

*Euskal musika  
gaur egun*

- **Ordua:** 19.30
- **Tokia:** Miguel Altuna institutu zaharreko aretoa
- **Parte hartzaileak:**
  - EH Sukarrako Norton
  - Maixa eta Itziar
  - Mikel Markez
  - Exkixu taldeko Alex kantaria
  - Sorotan Beleko Gorka kantaria
- **Moderatzailea:**
  - Joseina Etxeberria, Euskadi Gazteko esataria



**Joseina Etxeberria  
Moderatzailea**

"Guk inuxente egunean serio-serio hitzegingo dugu: kantagintzaz, emakumeez gain gizonezkoek, rockaz gazteez, musikaz... eta gainera euskaraz!! Badakizu, Xabier Montoiak eta Deabruak Teilatuetan taldeak gauean eskainiko duten kontzertuaren aurretik gurekin duzu zita. Ez hutsik egin eh...".

**Abenduak 28 osteguna: ROCK KONTZERTUA**

*Xabier Montoia eta  
Deabruak Teilatuetan*


- **Ordua:** 22.00
- **Tokia:** gartzela Zaharra
- **Sarrera:** 400 pzta.

**Xabier Montoia**

Kaleratu berri duen "Beti oporretan" diskoak oso kritika onak jaso ditu musika adituen eta zaletuen aldetik. Mak-en aritutakoak berriz ere bildu eta plazarik plaza ari dira azkenaldian. Ostegunean, inuxente eguna, Gartzela Zaharrean izango dira diskoko kantuak eskaintzen.

**Deabruak Teilatuetan**

Tolosarrak dira eta Durangoko Azokarako plazaratu zuten diskoa salduenetarikoa izan da. Azkenaldian guztion ahotan eta komunikabide guztietan dagoen taldea. Talde sorpresa. Denboraldiko errebelazioa. Xabier Montoiaren aurretik joko dute.



DEABRUAK TEILATUETAN TALDEKOAK GOIKO ARGAZKIAN ETA XABIER MONTOIAREN DISKOAREN AZALA EZKERREAN.

**Deabruak Teilatueta taldearekin batera, abenduaren 28ko kontzertuko protagonista izango da Xabier Montoia. Bere bakarkako lehen diskoa, "Beti oporretan" izenekoa, kaleratu berri du eta zuzenean aurkeztuko du Gartzela Zaharrean ostegunean gaueko 10etatik aurrera.**

Mak taldeko lagunak izan zitu- en Kaki Arkarazo (kitarrak), eta Fernan (bateria) eta Mikel Irazoki (bajua) anaiekin batera joko du zuzenean.

**- Zer eskainiko duzu osteguneko kontzertuan?**

- Lehenbizi bakarka arituko naiz eta kitarra akustikoarekin hiruzpalau abesti joko ditut eta gero, Kaki, Fernan eta Mikelekin batera diskoko abesti guztiak eskainiko ditut, guztira ordubete inguruko saioa izango da.


**- Diskoak oso harrera ona izan du...**

- Bai, kritika onak jaso ditut eta alde horretatik oso pozik nago. Salmentak ez dakit nola doazen. Diskoarekin gustora geratu naiz, baina agian nahasketak egiteko egun gehiago izan banitu, gustorago geratuko nintzen. Diskoan 15 kantu sartu ditut, Mak taldeko garaikoak erdiak eta besteak ordutik hona egindakoak.

**- Mak taldean egiten zenuenarekin zerikusirik ba al du disko honek?**

- Ez, ez, ezberdina da zeharo. Laguntzaile izan ditudan musikoak Mak taldekoak dira, baina diskoak ez du harekin zerikusirik.

**- Beste musiko batzuek ere**



"MAK TALDEKOEKIN ARI BANAIZ ERE, GAUR EGUN EGITEN ARI NAIZENAK EZ DU MAK-EKIN ZERIKUSIRIK"

**hartu dute parte diskoan.**

- Bai, aipatutakoez gain, Jabi Pez (ahotsa eta kitarrak), M-ak taldean aritutako Angel Valdés (perkusioa) eta Lau Behi taldeko Mikel Lazpiur (teklatura) ere laguntzaile izan ditut.

**- Mak-ek beti izan ditu kritika onak, baina ez da arrakasta handia lortu duen taldea izan.**

- Bai, bost disko kaleratu genituen eta oso kritika onak izan genituen baina, nire ustez, orduan egiten zen musikarekiko aurrerata genbiltzan. Gaur egun Mak-en eragina jaso dute talde askok eta beharbada arrakasta haundiagoa

izango genuke gaur egun. Hala ere, arrakastaren kontua oso konplikatu da.

**- Zurekin batera Deabruak Teilatueta izango dira ostegunekoak. Gustoko dituzu?**

- Bai, asko. Oso interesgarriak iruditzen zaizkit, azkenaldian zuzenean ikusi ditut eta benetan inpresio ona jaso dut. Kontzertu ona eskainiko dute ostegunekoan...

**- Bukatzeko, Xabier, entzun dugu Michael Jackson oso gustoko duzula...**

- Bai, aspalditik gustatzen zait eta bere abestien bertsoak egin izan ditut.

**Xabier Montoia: "Diskoko abesti guztiak eskainiko ditugu"**

Jonan Fernández, Elkarriko koordinatzailea

## "Pake prozesuaren kostoak asumitu behar dira"

**Asteazkenean bere hirugarren urteurrena bete zuen Elkarri elkarrizketa eta akordioaren aldeko giza mugimenduak. Jonan Fernández taldeko koordinatzaileak "Eta Euskal Herrian, zergatik ez?" izenburuko hitzaldia eman zuen pasa den ostegunean Bergaran.**

**- Eta Euskal Herrian zergatik ez?**

- Euskal Herrian ere gertatuko da baina nik uste heldze prozesu batetan gaude. Dena den gero eta gehiago ikusten dira faktore batzuk indikatzen dutenak hortara goazela; Irlandan gertatu den bezala hemen ere pakea helduko da. Baina jakin behar da elkarrizketa edo pake prozesu bat ez dela erreza, zaila dela, oztopoak agertzen direla eta kostoak asumitu behar direla. Perspektiba horrekin tinko eta gogor lan egin behar da.

**- Elkarri sortu zenetik asko aldatu al da hemengo egoera?**

- Gure lan arloan aldaketa bat eman dela uste dut. Gu jaio ginenean gehiengo elkarrizketaren alde zegoen, baina eritzi hori pasiboa zen. Gure asmoa zen gehiengoaren eritzi horiek aukera determinante bat izatea eta nire ustez hori da aldaketa nagusia. Gaur egun ez da eztabaidatzen elkarrizketa bai ala ez baizik eta elka-

rizketa noiz eta nola.

**- Eta noiz eta nola?**

- Guregatik balitz oraintxe bertan. Gu prozesu batzuetan lanean ari gara: alde batetik pake borondateen kontratua martxan daukagu eta, bestetik, nazioarte mailan laguntza lortzeko lanean ari gara (gatazka guztietan konponbideak lortzeko nazioarteko laguntza hori ezinbestekoa dela ikusida). Notizia ez da boletin ofizialean agertuko baina zalantzarik gabe pake prozesu batetan sartuko gara.

**- Pasa den asteko gertakariak zein eragin izan dute?**

- Eragin tinko eta puntual bat edukiko dute. Ez da berria honelako gertakerak ematea. Momentu txarrak izaten dira baina beti gaintitu egiten dira eta bueltan hasi behar da.

**- Zeintzuk izango zirentzako pake lortzeko oztopo nagusiak?**

- Une honetan inkomunikazioa, mesfidantza (agente ezberdinen artean) eta gero baita ere ez asumitzea elkarrizketaren bideak kostoak badituela.

Alderdi politiko batzuek bide poliziala asumitzen dutenean kostoak asumitzen dituzte (Roldan, Yanci, Kalparsoro edota Zabalzaren kasoak). Baina elkarrizketaren bidean ematen du alderdi politiko batzuek nahi dutela kostorik gabeko bide bat izatea, arriskurik gabeko bide bat eta hori ez da horrela.

**- Nolakoa da alderdi politikoen jarrera?**

- Ba kasu batzuetan aldaketa nabarmenak eman dira, gero eta zentratuago daude elkarrizketaren bidean. Beste kaso batzuetan, berriz, seguru bat nahi dute aurrerapausu bat emateko eta iniziativa eta erabakitze gaitasun falta somatzen dira.

### "Zalantzarik gabe pake prozesu batetan sartuko gara"



Gatazkan zeresanik dutenen arteko inkomunikazio eza da gaintitu beharreko oztopotariko bat Jonan Fernández ustez.

# Gabon gauean kalera irtetzen zara ala etxean egoteko egun bat da zuretzat?



**Gregorio Fernández**  
23 urte, ikaslea

Nik uste dut biak egin daitezkeela, lehenengo etxean familiarekin afaldu eta ondoren lagunekin kalera irten. Ni holandarra naiz eta ohitura ezberdinak dauzkagu.



**Nuria Corrius**  
23 urte, ikaslea

Etxean geratzen naiz, familiarekin. Afaldu, zerbaitetara jolastu eta elkarrekin egon. Kanpora irtetzean tradizioa eta familiaren berotasuna galtzen direla uste dut.




**Ramon Arzamendi**  
43 urte, langilea

Ohiturak etxean egoteko egun bat dela agindu arren, hori aldatzen ari da eta gero eta jende gehiago irtetzen da. Ez daukat ezer horren kontra baina etxean geratzen naiz.



**Elsa Rodríguez**  
43 urte, langilea

Etxean geratzen naiz eta gustatuko litzaidake jende guztiak egun hori etxean igarotzea. Horrelako egun bat mantentzen ez badugu...



**Iñaki Elorza**  
37 urte, langilea

Ni etxean geratzen naiz, gurean ohitura behintzat hori da. Baina jendea kalera irtetzea ez dut gaizki ikusten.



**Isabel Garate**  
28 urte, langilea

Etxean geratzen naiz baina ondo iruditzen zait kanpora ateratzea. Nere lagunak etxean geratzen dira baina ez dakit bestela ere zer egingo nukeen.

## IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia**  
**Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

*Kabutzia*

**ARRAINDEGIA**

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

## ZAPELAITZ

*Taberna*


Eguneko menuak  
astelehenetik ostiralera

San Lorenzo, 25 BERGARA

## LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA



## Gabon kantak

Egun hauetan heldu zait eskuetara "Gabon kantak" liburuxka Andra Mari ikastolan argitaratu dena. Harriturik gelditu naiz. Baina, harridura zergatik? Neure buruari galdetzen diot: salbuespena ote da horrelako iniziatiba ikustea? Ziur gaude beste ikastola askotan ere antzerako zerbait egingo dutela. Baina ez da aski kantak liburuan izatea besterik gabe. Haur eta ikasle bakoitzaren buruan eta batez ere bihotzean grabaketa egina edukitzea ezinbestekoa da gure etxea tente ikusi nahi badugu. Kezka handi baten jabe egin gara. Ohitura zaharrak, beti izan diren usuarioak galtzen ari dira. Izan duguna galdu eta ganorazko gauza berririk sortu ez. "Dringilindron", "Haurtxo txikia", "Edurra teilatuan", "Trakatan trakatan", eta abar luze bat desagertze zorian daude. Ozta ozta "Ator mutilak" oraindik ere salbatzen da.

Gabonak toki guztietan dute zer edo zer berezia eta apartekoa. Hemen Euskal Herrian ukaezina da Gabonak duten tradizio aberatsa. Kristautasun kutsua dute dudarik gabe. Baina hortan ez gara sartuko. Hala izanik ere, gauza bat dago begi bistan eta zera da, guk, hemen, Euskal Herrian Gabon kantak ikasteko ohitura handia izan dugula eta une honetan antzutasun bidean sartu garela. Elizetan bertan ere musika pieza ederrak, betikoak, gaur egun modan jarri diren musika ugari, gregoriano kantua adibidez, alboan laga eta mamirik gabeko kantuen eragina nagusitu da. Jendea erakartzeko sistema eskasa.

Ezinbestekoa da berriro ere eskola eta ikastoletan astindu haundi bat ematea. Gabon kantak berreskuratu eta plazaratu. Ura presatik pasata gero ez dago zer eginik.

**Andres OSA "Sakona"**



## Allegau die Gabonak

Allegau die zorioneko Gabonak, allegau die danak pozik eta zoriontsu eoteko fetxak, danak kontentu ta alegre, danak barre eta kantu, danak, danak?

Allegau die zorioneko Gabonak, allegau die mundua berriro pizteko jaixak, argixak ta piñuak, jaiotzak ta aurtxojesusak, nobenak ta dezimak, olentzeruak ta erregiak, kabalgatak ta bizarzurixak, pajjak ta kartak...

Allegau die zorioneko Gabonak, allegau die dana saltzeko ta erosteko egunak, corte inglesa eta galerias, eroski eta erosle, mamut eta pryca, sabeco eta simago...

Allegau die zorioneko Gabonak, allegau die dana jan ta edateko gabak, angulak ta kokotxak, legatzak ta bixiguak, bildotsak ta arkumiak, solomilluak ta txuletak, arduak ta txanpainak, polboroiak ta turroiak, konpotak ta konpotak....

Allegau die zorioneko Gabonak, allegau die familixa danak juntatzeko orduak, aita-amak, anai-arrebak, aitxitxamamak, lengusu-lengusinak, tio-tiak, koinatu-koinatak...

Allegau die zorioneko Gabonak, allegau da espektakulua. Allegau da pakia. Allegau die urteko egunik zoriontsuenak!

Zoriontsuenak?

**Joxe LAZKANO**

# GISASOLA BURDINAKI DENDA

## "Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA



Era guztietako marrazkiak inprimitzen ditugu. Argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibaloi edota zirkulismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulak: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorenzo, 7 behe. ☎ 76 50 39

# Garnish

## Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

## Eluska



PINTURA ERAKUSKETA

**NAIKARI**

Taberna

Masterreka, 20 ☎ 76 57 71



■ Sukaldari apartak

Bergarako **Helduen Heziketa Iraunkorreko (HHI-EPA)** zentroak antolatuta, azken bi astetan sukaldaritza ikastaroa izan da **Pertxa elkartean**. Bertan, 26 lagunek hartu dute parte eta, **Aitor Bolinaga** bergarar sukaldariaren eskutik, sukaldaritzaren sekretuak ezagutzeko aukera izan dute. Fetxa

bereziak hurbiltzen direnez, ikasitakoa praktikan jarri nahi izango dute. Beren ingurukoek ziur eskertuko dutela...

■ Ahots teknika lantzen

Ostiralean izan zen **Gipuzkoako Abesbatzen Elkarteak** antolatutako ahots teknika ikastaroko amaiera kontzertua izan zen Zabalotegiko aretoan. Abesbatzen elkarteak hirugarren urtez antolatu du ahots teknikako monitorea ikastaroa **Lezoko Tomas Garbizu Musika Kontserbatorioan** eta **Bergarako Musika Eskolan**. Urtariletik hona klaseak hamabostean behin izan dituzte (20 ikasle izan dira guztira) eta ikastaroari amaiera emateko kontzertu bikaina eskeini zuten ostiralean Zabalotegin. Ikastaroan parte hartu duten **Agustin Badiola, Blanca Cebrián, Itziar eta Izaskun Labaien eta Imanol Urzelai** bergararrek ere goi mailako ahots teknika lortu dutela azaldu zuten jendeaurrean.



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

**zumelaga**

JATETXEA

etorri eta galdetu!!

**EZKONTZAK, DESPEDIDAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, MENU BEREZIAK...**





■ **Xamatzen jaialdia**

Bere hamargarren urteurrena ospatzeko jaialdi benetan bikaina eskeini zuen larunbatean **Xamatz** dantzataldeak Frontoian. Xamatzeko kide izan diren 80 bat lagunek hartu zuten parte jaialdian eta Frontoira hurbildutako ikusleek, berogailua faltan bota arren, primeran pasa zuten Xamatzekoek prestatutako

errepertorioarekin. Dantzariak lehengo eta oraingo dantzak dantzatu zituzten eta "beteranoak" oraindik sasoi onean direla erakutsi zuten. Ekitaldian zehar Xamatzekoek plaka oroigarri bat eta lore sorta eder bat eskeini zieten **Jabier Mendizabal "Surra" eta Maite Barrena** senar-emazteei azken urtetan herriko dantzaren alde eginiko lan aipagarriagatik. Zorionak guztiei!!



**Zertan dihardute ba?**



**Forum Cinematographe**

taldeak asteartean eguniko batzarrean erabaki zenez, Josean Ballesteros (argazkian), Joakin Elkoroberezibar, Dani Santos, Eduardo Tena eta Antonio Zabalak osatuko dute zuzendaritza batzordea. Talde honek herriko zinezale guztiak biltzeko helburua du. Kaleratuko duten informazioaren bitartez, bazkideak lortzeko kanpainari ekingo diote. Lehen zine emanaldia ziuurrenik urtarrilaren 12an izango da eta hileroko lehen ostiraletan errepikatuko dira. Era berean, ostegunetako zine-kluba ere beren esku gera liteke. Taldearen hurrengo bilera urtarrilaren 2an, 19.15etan, Kultur Etxean izango da.

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

*Tomas Gezalaga*

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

**Ametz**



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

**AMETS TAILERRAK**  
Berezano auzoa OÑATI

# Fidel Eizagirre

**Fidel Eizagirre 58 urteko zarautzarra San Pedroko parrokoa dugu azken bi urtetan. Teologia ikasketak egin zituen Donostiako Seminarioan eta Parisen eta, Bergarara etorri aurretik, Eibarren eta Ordizian izan da. Bergaran itsasoa botatzen du faltan, bere hitzetan "nere izatearen zati bat delako".**



*"Urte berriari pakea, espetxeratuak etxerantz urreratzea eta gaurko tentsioari konponbideak topatzea eskatzen dizkiot. Orain txikitan baino gehiago disfrutatzen dut Gabonetan. Turroi biguna dut gustoko eta loterian ez dut jokatzeko"*

- Zer dira Gabonak zuretzat?
- Gure istiluetatik salbatzera datorren eta gu baino haundiago den baten ospakizuna.
- Non igaroko dituzu?
- Bergaran daukadan familiarekin, ama eta Rafael anaiarekin.
- Gabonetako gauzarik onena?
- Egiten diren ametsak, pakearekin amestea eta horrela, nahiz eta errealtatean ez nabaritu.
- Eta gauzarik txarreana?
- Kontsumismoa eta jendearen zorabioa.
- Gabonen zentzua mantentzen da gaur egun?
- Talde txiki batzuetan bai. Familia giroa gorde da neurri batean...
- Txikitako ala gaurko Gabonak?
- Orain gehiago disfrutatzen ditut.

- Egunik gogokoena?
- Gabon gaua.
- "Gauerdiko Meza" egiten al da Bergaran?
- Monja Zaharretan bai.
- Bizar Zuri ala Olentzero?
- Biak. Umeentzako ilusioa den guztia balekoa da.
- Melchor, Gaspar ala Baltasar?
- Aspaldian ez dira gure etxetik pasatzen...
- Oparirik onena, zein?
- Adiskidetasun on bat eta herri mailan pakea izatea.
- Gabon kanta gogokoena?
- Manolo Urbietak Zarautzeko umeein kantatzen zituenak.
- Gabonetako platerik gustokoena?
- Arrain gozo bat.
- Turroi gogorra ala biguna?
- Biguna.
- Jaiotza jartzen duzue?
- Ez, ezta arbolarik ere.
- Gabonetako felizitazioak bidaltzen dituzu?
- Orain ez. Lehen bai...
- Eta jaso?
- Oso gutxi.
- Loterian jokatzeko duzue?
- Ez.
- Urte berriari zer eskatzen diozue?
- Nik beti berdina: Pakea. Espetxeratuak gutxienez etxerantz urreratzea eta gaurko tentsioari konponbideak topatzea.



## ARRASTRO

## Birziklaia



Erabilitako objetuen berreskurapena:  
altzariak, saneamendua, etxerako tresneria, aintzinakoak.  
Altzari bilketa • Zurgintza lanak • Beira eta ispiluak.

**BIGARREN ESKUKO ALTZARIAK PREZIO ONEAN!!**

**Erabiltzen ez dituzun altzari edo tresneriarik badaukazu dei egin 78 32 88 telefonora eta geuk batuko ditugu**

Gure ordutegia hurrengo da:  
Astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 4etatik 8etara. Larunbatetan, goizeko 11etatik ordu 2etara

Kalezaharra 54 - OÑATI - Tfnoa: 78 32 88

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOAK



San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R. S. I. 209374 - SS

**BERGARA**



**ETXEBIZITZA**

**Pisu** bat alokatu edo konpartituko nuke San Lorentzo aldean. ☎ (945) 25 79 38.

Aranerrek **pisua** salgai. ☎ 76 00 39 / 79 27 68.

**Pisua** salgai San Antonion. Bi ganbara. ☎ 76 46 22.

**Garaje** bat alokatuko nuke Burdiñaten. ☎ 76 30 32.

**Pisu** amueblatua saltzen da Zubietan. ☎ 76 62 44.

**Etxea salgai** Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

**Garajea** dut alokatzeko Zurraideron. ☎ 76 37 69.

**Taberna** salgai. Erreztasun asko. ☎ 76 46 90.

**Lokal** bat saldu edo alokatzen da Ozaetan. ☎ 76 47 74.

**Duplex** pisua salgai Aranerrek. ☎ 76 06 63.

**Pisu** amueblatua alokatzen da Bolun. ☎ 76 39 91.

**Pisua** salgai Koldo Eleizalde 18n. ☎ 76 31 57.

**Garaje** bat alokatuko nuke Burdiñaten. ☎ 76 18 52.

**Garajea** erosiko nuke Matxiategin. ☎ 76 19 98.

**Pisua** salgai Bidekurutzetan. ☎ 76 56 07.

**DENETARIK**

**Umeen** kotxe-silla bat erosiko nuke. ☎ 76 46 54.

**Zibro-kamin** estufa bat (RCA-86 B modeloa) salgai. ☎ 76 21 90.

**Eski** denboraldian Jacan pisua osatzeko jendea behar da. ☎ 76 14 59 (lulen).

**Collie** arrazako txakurkumak salgai. ☎ 76 64 83.

**Mendiko** bizikleta salgai. ☎ 76 15 76 (Xabi).

**Mendiko** bizikleta bat eta Flanders aluminiozko koardoa salgai. ☎ 76 47 94.

**Peugeot** Scooter motorra egoera onean salgai. 65 cm3. Prezio interesgarria. ☎ 76 46 18.

**Renault 4 F6** kotxea salgai. ☎ 76 22 11.

**Sukalde** berri berria saltzen dut. Prezio interesgarria. ☎ 76 21 55 (eguerdian).

**Kawasaki** 125 KX motorra salgai. ☎ 76 25 50.

**Estufa** japoniar bat salgai. 30.000 pezeta. ☎ 76 55 63.

**Bizikletan** ibiltzeko rodilloa salgai. ☎ 76 18 78.

**Volkswagen** Passat diesela edo antzeko kotxea erosiko nuke. ☎ 77 09 40.

**Donostian** (Amaran) pisua osatzeko neska bat behar da. ☎ 47 38 85 (deitu 8etatik 10etara).

**LANA**

**Aleman** klaseak ematen dira. ☎ 76 12 77 (Maite).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

**Matematika**, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 44 34.

**Aleman** diplomatuak klaseak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

**Matematika** eta zientzietako klaseak. ☎ 76 03 72.

**Ordenadorez** lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59 (Inma).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Gutxitu psikikoen hezitzaile** batek gutxituak, zaharrak edo haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 52 08.

**Etxeko** lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89 (Rosario).

**Esperientziadun** neska batek etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 08 82 (Isabel).

**Ingeles Filologia** duen neska batek lan egingo luke. ☎ 76 40 63 (Manoli).

**Cambridgeko** titulua duen publizitate lizentziatuak ingeles klaseak emango lituzke. ☎ 76 06 56 (Irene).

**Etxeko** lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 46 48 (Paki).

**Etxeak** garbitu edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 76 10 00.

**OHO** eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Matematika**, zientziak eta diedriko klaseak (UBIra arte). ☎ 76 24 31 (Eneko).

**KONDE** PANADEROKUA  
  
 Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

**Sugoi**  
 ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...  
 Irizar pasealekua, 2 behea ☎ 76 59 54 BERGARA

**REMENTERIA**  
**Altzariak**  
 Egongelak / Logelak  
 Aukera guztiak / Enkarguan  
 Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

**Deco-Textil**  
**ZANGITU**  
 Etxerako lentzeria  
 Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak  
 Bisiloak, tapizak, etab.  
 Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

 **DEBA GARAIA**  
 INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA  
 Arrasate / Bergara / Elgoibar  
 T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

**Siaska**  
 Dena zure haurrarentzako  
 San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

**BEDELKAREko**  
*harategiek*



*Jai Zoriontsuak*  
*opa dizkizuite*

**iGARZA**

Irizar, 3 ☎ 76 14 12

**Jon Mirena**  
**Leturia**

San Pedro, 24 ☎ 76 12 23

**Sebastian Imaz**

Aranerreka, 1 ☎ 76 32 67

**Luis Mari Rezola**

Matxiategi, 7 ☎ 76 17 63

**Javier Lazpiur**

Komenio, 2 ☎ 76 10 72

**Pello Urcelay**

Ibargarai, 7 ☎ 76 00 45

**LUIS LETURIA**

Artekale, 5 ☎ 76 11 30

**Jose Manuel**  
**Zurutuza**

Urteaga, 9 ☎ 76 08 68

*Danetik eta onetik BEDELKAREko harategietan*  
**500.000 pzta. irabaz ditzakezu!!**

## 1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. ERROTAGAIN	19	8	31	17
2. MADURA INDUSTRIAS GOL	16	8	30	13
3. KABIA	16	9	23	19
4. MONGATXURRA	15	8	31	16
5. BERGATRANS	15	9	26	18
6. BAR CANALEJAS	15	8	20	10
7. OGIZUN	14	8	28	24
8. ORTZI	13	8	19	17
9. ARLOTEAK	8	8	14	18
10. OZETA	6	9	20	26
11. BILDURBAREK OPEL/LAM	6	8	16	19
12. UFALA	2	9	15	37

## 2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. JAUJA OH ZEREZOS	25	9	70	23
2. A ZE FLAXA	19	9	28	26
3. HARTU ZAMAK	17	9	35	25
4. PAGOMENDI	17	9	45	29
5. NAIKARI HOOLIGANS	13	9	38	37
6. UVE BIKOITZA	12	9	30	42
7. KAYAK OS JARDINEIROS	12	9	48	33
8. ETXAGI	10	8	38	35
9. AUTOBEREZI	9	8	33	35
10. HALTZARI	6	8	25	47
11. INDARGORRI	6	9	17	22
12. ERI	4	9	23	37

## 3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. KIROLZALEAK	22	10	44	24
2. SOROPOTROAK	21	9	45	32
3. NEKROFILIKOS	18	9	36	29
4. MOSKIS	16	9	27	34
5. LA JUVE	13	9	29	31
6. CONSTR. BERGARA	12	9	31	27
7. EZINLEIKE	11	8	37	23
8. AMOZKIBAR	10	8	15	13
9. EH BITERRAK	10	8	15	38
10. SHAKTALE	8	9	19	25
11. ARI ARI	6	8	31	44
12. IGANDEKOAK	3	7	18	25

## 4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	22	8	38	14
2. PJS	16	8	39	13
3. TXIPIRON	15	8	31	16
4. GUADALEST	14	8	24	20
5. OSINTXU	13	8	32	29
6. PATA NEGRA	13	8	25	34
7. PATXARAN TEAM	11	7	26	15
8. MATXAKATEGI	8	8	30	36
9. LABEGARAIETA	7	8	19	28
10. ALDOKA MALDOKA	4	8	26	31
11. XURRUPAK	0	7	13	49

## TALDEAK



**La Juve** taldea Iñigo Herreros, Andoni Urrutia, Xabi Atxa, Josu Urrutia, Rubén Arrondo, Asier de Zerio, Xabier García, Ion Iraegi eta Martín Balzategik osatzen dute. Bi urte daramatzate txapelketan jokatzeko eta beti ere 3. mailan izan dira. Taldeko izarra Iñigo Herreros dela adierazi digute taldekideek, "errematatzaile bikaina baita". Aurtengo denboraldirako helbururik nagusiena mailaz igotzea da eta izenari dagokionez La Juve, Gazteteari omenaldi bat egiteko dela aitortu digute, izan ere, "Joven"enetik atera baitute izena.

## PARTIDUAK

### LARUNBATEAN BARRUAN

09.00: Labegaraieta-Matxakategi • FAC

10.00: FAC-Txipiron • Labegaraieta

11.00: Xurruapak-PJS • Txipiron

### LARUNBATEAN KANPOAN

10.00: Osintxu-Pata Negra • Patxaran Team

11.00: Patxaran Team-Aldoka Maldoka • Osintxu

12.00: Autoberezi-Etxagi • Aldoka Maldoka

13.00: EH Biterrak-Igandekoak • Etxagi

### ORDAINTZEKO EPEA BUKATZEAR

Txapelketan diharduen talde bakoitzak 8.000 pzt. ordaindu beharko ditu jardunaldi hau amaitu aurretik. Ordurako ordaindu ez duten taldeei partidu bat 1-0 galdutuz emango zaie, hiru puntu kenduko zaizkie, beraz. Urte bukaerarako ordaindu ez dutenak, berriz, txapelketatik kanporatu egingo zaie.

## EMAITZAK

### 1. MAILA

BAR CANALEJAS-OGIZUN	3 - 1
UFALA-ARLOTEAK	1 - 1
ERROTAGAIN-MONGATXURRA	3 - 4
OZAETA-MADURA INDUSTRIAS GOL	1 - 7
ANGIOZAR-BERGATRANS	3 - 2
BILDURBAREK OPEL/LAM-KABIA	3 - 2

### 2. MAILA

ERI-INDARGORRI	1 - 2
UVE BIKOITZA-OH ZEREZOS	1 - 6
KAYAK OS JARDINEIROS-PAGOMENDI	4 - 4
HALTZARI-A ZE FLAXA	1 - 4
HARTU ZAMAK-NAIKARI HOOLIGANS	2 - 5

### 3. MAILA

NEKROFILIKOS-AMOZKIBAR	2 - 1
SHAKTALE-CONSTRUCCIONES BERGARA	3 - 3
ARI ARI-MOSKIS	2 - 3
EZINLEIKE-KIROLZALEAK	3 - 5
LA JUVE-SOROPOTROAK	2 - 4

### 4. MAILA

OSINTXU-MATXAKATEGI	7 - 3
TXIPIRON-GUADALEST	2 - 0

## TALDEAK



**Shaktale** taldea Jorge Mendibil, Eneko Tabuenka, Juanxo Jiménez, Edu Orgaz, Alex Otero, Iñaki Akizu, Fernando Moreno, Iban Osa, Jabi Gabilondo, Edu Mendibil, Jon Iribekanos eta Jose Mari Gabilondok osatzen dute. Dagoeneko 5 urte daramatzate txapelketan jokatzeko eta 3 urtez lehen mailan jokatzeko aritu ondoren, azken urteetan 3. mailan izan dira. Adierazi digutenez "aurtengo denboraldian gure helburua UEFA edo Europako Kopa jokatzeko sailkatzea da". Agian txapelketaz konfunditu egin dira edo adar jotzaile apartak dira Shaktalekoak; hori zuek erabaki.

**KARTELDEGIA**

**Areto futboleko Bergarako selekzioa**

Areto futboleko Lagunak elkarteak antolatuta datorren abenduaren 30ean areto futboleko txapelketa jokatuko da Labegaraieta kiroldegian. Bertan Bergarako selekzio bat, Arrasate, Zumarragako S.D. Gohierri eta Ondarroako Astilleru taldeek jokatuko dute. Lehen partidua abenduaren 30ean jokatuko dira eta finala urtarrilaren 7an arratsaldeko 4,30etatik aurrera Labegaraietan. Bergarik Lauri Askargorta, David Romero, Asier Elorza, Xabier Albusua, Jose Mari Romero, Aitor Anton, Andoitz Garitano, Iker Beistegi, Arkaitz Arana, Juan Carlos Prieto eta Aitor Usaolak jokatuko dute.

**San Silvestre**

San Silvestre Herri Krossa jokatuko da abenduaren 31n herriko kaleetan zehar. Arratsaldeko 5etan emango zaio hasiera San Martin plazatik eta hiru maila bereztuko dira: 14 urtera artekoak (1.200 m), 14tik 18ra artekoak (3.000 m) eta 18tik gorakoak (9.000 m). Izen-ematea doan da eta proba hasi baino orduerdi lehen itxiko da irteeran.

**Kiroldegia itxita**

Abenduaren 24 eta 31n arratsaldez Kiroldegia itxita egongo da.



Joan zen igandean aurkeztu zuen BKEk 1995-96 denboraldirako dituen jokalaririk.

**BKEko Pelota saila ahal den guztia egitera**

BKEko pelota sailak joan zen igandean egin zuen 13 urtetik gorako pelotarien aurkezpen ofiziala.

Aurtengo denboraldian 17 pelotari izango dira eta lehenik eta behin Deba Arroko txapelketan arituko dira. Aurten Deba Beheko herrien aurka jokatuko dute baina Ermuko pelotariak ez dira txapelketara aurkeztu. "Gure asmoa ahalik eta urru-

nen iristea da, baina behoko mailetan Deba Behekoak maila handiagoa dute. Nagusietan, berriz, makalagoak dira" adierazi digu Reyes Azkoitia entrenatzaileak.

Horren ondoren Gipuzkoako Herrien Arteko txapelketa jokatuko dute eta Azkoitia esan digunez zorteak garrantzia handia izango du. "Txapelketa horretan 5 edo 6 lehenen artean daude-

nen aurka jokatzen tokatzen bazaizu ez dago zer eginik, baina beti ilusia egiten du Herrien Arteko txapelketan aurrera heltzeak" esan du Reyesek.

Bestalde, pelota sailean 13 urtez azpiko 20ren bat pelotari ari dira lanean eta Reyesek pelotan jokatu nahi duten herriko gazteei dei egiten die klubean sartzeko. Nahi duenak elkartera agertu besterik ez du.



**Emakumezkoen futbito txapelketa**

Lagunak Areto Futboleko Elkarteak antolatu duen Emakumezkoen txapelketarako izena emateko epea datorren asteartean, hilak 26, bukatuko da. Egun horretan bilera bat egingo da Kultur Etxean arratsaldeko 6etan eta bertara izena eman duten talde guztien ordezkariak agertu beharko dira.

## KARTELDEGIA

## FUTBOLA

- ◆ **Bergara-Real Unión**  
Preferente maila.  
Larunbata, 15.30. Agorrosin.
- ◆ **Bergara-Hondarribia**  
Ohorezko mailako jubenilak.  
Larunbata, 17.15. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Soraluze**  
2. mailako jubenilak.  
Igandea, 11.00. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Urretxu**  
Emakumezkoak.  
Larunbata, 11.00. Ipintza.

## ESKUBALOIA

- ◆ **Bergara-Mercabilbao**  
Kadete neska.  
Larunbata, 16.15.  
Labegaraieta kiroldegia.
- ◆ **Bergara-Mercabilbao**  
Jubenil neska.  
Larunbata, 17.30.  
Labegaraieta kiroldegia.

JUBENIL MAILAKO  
GABONETAKO FUTBOL  
TXAPELKETA

Bergara, Aloña Mendi eta Real Sociadadeko jubenil mailako futbol taldeek Jubenil Mailako Gabonetako Futbol Txapelketa jokatu dute abenduan. Hona hemen karteldegia:

- ◆ **Bergara-Aloña Mendi**  
Osteguna, 28  
17.00etan, Ipintzan.
- ◆ **R. Sociedad-Eibar Urko**  
Ostirala, 28  
17.00etan, Ipintzan.
- ◆ **Finala**  
Larunbata, 30  
17.00etan, Agorrosin.

# Iñigo Igartua

## Gipuzkoako txapeldun

**Joan zen igandean Andoainen jokaturako ziklo-kros lasterketan Gipuzkoako txapelketa lortu zuen Iñigo Igartua. Horri buruz eta aurtengo denboraldiko dituen asmoez hitz egin dugu berarekin.**

**- Gipuzkoako txapelketa irabaztea, zela baloratzen duzu?**

- Nahiko pozgarria da, kontutan hartuta aurreko astean katarroarekin gaisorik izan nintzela, ondo dago. Osasunez ondo egon ezker helburu nagusia Andoaingo nazioarteko karrera irabaztea izango litzateke.

**- Ze proba dituzu hurrengo egunetan?**

- Igandean Galizan lasterketa daukat eta ondoren, 30ean, Alzasuko Euskadiko txapelketera noa eta urtarrilaren 14an Espainiako txapelketara joango naiz. Itxaropenaz ikasten dut etorkizuna, izan ere urtero katarroren bat harrapatzen dut eta aurtengoa pasatu dudanez eta ikusirik Andoainen nahiko ondo ibili nintzela ondo ibiliko naitzela uste dut.

**- Konforme al zaude orain arte egindako lanarekin?**

- Espainia mailan 5 karrera irabazi ditut eta besteetan aurrean izan naiz. Halere Igorreko Nazioarteko proban osasun arazoak zirela eta ez nintzen oso ondo ibili eta hor daukat pena haundiena. Aurtengo preparazioa beste urte batzuetan baino atzeratuego da-

ramat, hurrengo karrertan freskoago egoteko eta katarroa pasatu ondoren baikor samar nago.

**- Zein da zure helbururik garrantzitsuena?**

- Ziklo-kroseko denboraldia motza da eta ondorioz karrera bakoitza helburua garrantzitsua da. Baina garrantzitsuenak Euskadi eta Espainiako txapelketak dira, etxe-ek gehien baloratzen dituztenak baitira.

**- Aurten talde berri batean ari zara ez?**

- Bai, Galizako Caixa Pontevedran nago Pla ba-

lentiarrarekin batera. Nahiko arraroa da balentziar bat eta euskaldun bat Galizako talde batean izatea, baina taldeko patroiaren "pike" baten ondorioz gaude. Kontua da Maceira txirrindulari galiziarra talde horretan zegoela, baina ezer esan gabe alde egin du beste talde batera. Hori ikusirik, Maceira Estatu mailako onenetarikoa dela kontuan izanik, Caixa Pontevedrako arduradunek Galizako lasterketan aurre egiteko kontratatu gaitu.



Orain arte korritutako 7 karreretatik 5 irabazi ditu.

## "Aurten prestaketa atzeratuagoa daramat hurrengo karreretan freskoago egoteko"

# Gabonak!!

**G**abonetan gaudela eta, Gabonen inguruko bi argazki ekarri ditugu oraingoan txoko honetara. **Goikoa**, orain dela 27 urteko argazkia duzue. Mariaren Lagundian jaiotza bizia antolatu zuten eta lau-bost urteko haurrek egin zuten Amabirjina, San Jose, aingeru eta baserritarren papera, haurtxo Jesusena egin zuen urtebeteko mutikotxo ere agertzen da.

Gabon eta Natibitate egunetan, egun osoz, jardun zuten bertan.

Honetxek dira argazkian agertzen direnak, ezkerretik hasita:

Baserritarrak: Idoia Etxarri (jarrita), Nestor Etxarri, Amaia Aranzabal eta Ana Alonso (jarrita).

Aingeruak: ezkerrekoa Tere Garmendia, goikoa Inmaculada Zabaleta eta eskumakoa Mari-bel Etxaniz.

Amabirjina eta San Jose: Jai-ione Larrañaga eta Arantza García.

Haurtxo Jesusena egiten duen umea, ezezaguna.

**Beheko argazkia**, berriz, 1942.eko Gabon egunekoa da. Acción Catolicako talde bat da eta gaur egun bezala orduan ere kalez-kale eta etxez-etxe ibiltzen ziren Gabon eskean kantuan.

Hara nortzuk diren ezkerretik hasita:

Zutik: Edurne Agirrebeña,



Miren Castañares, Miren Villar, Amaia Villar, Juanita Castro eta Maria Dolores Elustondo.

Jarrita: Isabelita García eta Gori Larrañaga.

*Argazkiak:*

*Goikoa: Idoia Etxarri*

*Behekoa: Gori Larrañaga*

Atsedeen zentrua  
**LOKARTU**  
 Koltxoi-denda  
 Orain SORALUZEN

**ARGI PLASTIC**  
 PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
 Leihoak, ateak, manparak...  
**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**  
 Erakusketak: Masterreka 14, behea BERGARA  
 Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE  
 Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

**ZUBIETA**  
 elektragintza  
 MOTORREN BOBINAKETA  
 ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK  
 Kruz Gallastegi, 2 behea  
 ☎ 76 23 48

ederTu

BARRENKALE, 23

☎ 76 29 65

BERGARA



## Altzarien dekorazio eta erakusketa

- BETIKO LEIHOAK GAURKO TEKNOLOJIARI EGOKITUTA
- EZ HOTZIK, EZ ZARATARIK, EZ URİK!!
- LEIHO TERMOAKUSTIKOAK
- ATEAK
- ARMAIRUAK
- EGURREZ EGINDAKO LANAK

AROZTEGIA

# UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Barruti)

Telefonoa eta Faxa: 76 54 91

**ZATOK GURE  
ERAKUSKETA IKUSTERA**



# JAKINA



**BAINUAK**



**ZERAMIKAK**



**SUKALDEAK**

Zure sukaldea edo bainua berritzeko eta amueblatzeko  
behar duzun guztia eskainiko dizun

**DENDA ESPEZIALIZATUA.**

Proiekturik exijenteenari ere aurre egiteko gai den  
**TALDE PROFESIONALA** dugu.

San Lorentzo  
Poligono Industrialia.  
Amilaga, 10 behea.  
BERGARA

**JAKINA**

Telefona: 76 03 30  
Faxa: 76 02 91